

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko abenduaren 3ko bilera arruntean (4/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

14. Gaia.- GUFEn Errekalde Laguntza Zentroko Zuzendari lanpostua aldi baterako betetzeko merezimendu espezifikoen lehiaketaren deialdia.

"Lehenengoa.- GUFEn Errekalde Laguntza Zentroko Zuzendari-lanpostua aldi baterako betetzeko merezimendu espezifikoen lehiaketaren deialdia onestea.

Bigarrena.- Deialdiaren oinarriak onestea eta erabaki honen eranskin gisa jasotzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau oinarri osoekin batera argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFEn webgunean.

Laugarrena.- GUFeko gerente jaunari baimena ematea deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatzeko, dagokion bezala ebatzi arte.

Bosgarrena.- Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko (2) epearen barruan, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Batzorde honi, hilabeteko (1) epearen barruan."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-12-10
GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

